

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Elizak irekitzeko programari esker, 50.575 lagunek 2014an diruz lagundutako 14 tenplu bisitatu ahal izan dituzte

Ekimenak urtetik urtera bisitari gehiago ditu, % 11 igo da 2013arekin alderatuz eta parroko nahiz herritarren laguntza estua du

Lunes, 03 de noviembre de 2014

50.575 lagunek bisitatu dute uztailearen 1etik irailaren 1era Nafarroako Gobernuak finantzaturako 14 tenpluak eta ekimen hori "2008-2015 turismo-intereseko elizak nahiz monumentuak irekitzeko programa"-ren testuinguruan kokatu behar da. Hari esker, Santiago bidean zehar banaturako 37 monumentu bisita daitezke. Hau da, 2013ko zifra baino % 11 gehiago; iaz, 46.564 bisitari izan ziren (diruz lagundutako 14 eraikinetarako).



Liburuxkaren irudia.

Programa horrekin Nafarroa gurutzatzen duten Santiago bideko lau ibilbideetako 14 elizak doan bisitatu ahal izan du jendeak. Eta bisita horiek ezin izango ziren bermatu garbiketa, elektrizitate, zaintza eta egokitzapeneko gastuetarako diru-laguntzarik izan ezean; horri esker, 160.000 erromesek baino gehiagok ezagutu ahal izan dituzte 2008tik 2011ra eta 63.666 lagun gehiagok, 2012an.

Ekimen horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu urtetik urtera eta bertan eskuzabaltasun osoz laguntzen dute ere, inplikaturik dauden parrokoek nahiz herritar boluntarioek; zenbaitetan, beren tenpluak Turismo Departamentuak diruz lagun dezakeena baino denbora gehiagok irekita izaten dituzte, eta liburuxkak ere inprimatzen dituzte eraikinaren informazio zehatzarekin.

Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak Artzapezpikutzarenak diren elizak turista eta nafarren esku uzten jarraitu nahi du, bisitariarentzat itxita segitzen duten elizak, eta, horretarako, irekitzeko kostuak ordaintzeko laguntzak emanaz. Ez da ekimen ohikoa, baina asko baloratzen dena, toki horietako liburuetan bisitariak beraiek utzitako iruzkinen arabera: "Azkenean eliza irekita!!!! Mila esker ekimen honengatik"; "Mila esker eliza eder hau irekita izateagatik"; "Ezagutzera

eman beharreko toki oso berezia"; "Leku oso polita, arte eta historiaz betetakoa. Eta azalpen bikainekin; gidariari eskerrak ematen dizkiogu erakutsitako seriotasun, karisma eta adeitasunagatik. Gomendatuko dugu".

2014an programak aurrekontu bera jaso du: 30.000 euro.

Liburuxken argitalpena eta diruz lagundutako elizak

Erljio-eraikinak irekitzearekin batera, Turismoko Zuzendaritza Nagusiak liburuxka destolesgarri bat egitea diruz lagundu du lau hizkuntzetan, eta Nafarroako 15 turismo-bulegotan banatzen da. 33.000 ale banatu dira, eta haietatik 20.400 gaztelaniaz eta 12.600 ingelesez, frantsesez eta euskaraz (4.200 hizkuntza bakoitzean). Lan horretarako 4.295 euro erabili dira.

Laguntza jaso duten elizak honako hauek izan dira: Eunateko Santa María, Lizarrako San Migel, Garesko San Pedro, Ziraukiko San Román, Villatuertako Asunción, Monjardíneko Villamayor, Monrealgo Natividad, Urdazubi/Urdaxeko San Salvadorreko Monasterioa, Aibarko San Pedro, Tuterako Magdalena, Cabanillasko San Juan de Jerusalén, Elizondoko Santiago, Esako San Esteban eta Iruritako San Salvador.

Gero eta bisitari gehiago

Programa honen diru-kopurua 2013an 30.000 eurora jaitsi zen arren aurrekontuak izandako murrizketengatik (horrek bisitak hiru hilabetetik 2ra mugatzea ekarri zuen, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra etengabe, 10:30etik 13:00ak arte eta 17:30etik 20:00ak arte), bisita-kopuruak gorako joera izan zuen eta 2012an baino % 8,39 bisitari gehiago izan zen. Murrizketak izan arren, urte horretan programaren barnean beste eraikin bat sartu ahal izan zen: Iruritako San Salvador. Aurreratu denez, zifrek ere gora egin dute 2014an aurreko urtearekin alderatuz (% 11).

2014an, donejakueko elizetako bisitarien bi heren espainiarrak ziren eta heren bat atzerrikoak. Lehenengoan artean, Gaztela Leonetik etorritakoen gorakada garrantzitsua aipatu behar da (bi autonomia erkidegoen arteko lankidetzagatik; haren arabera, beste Komunitateko monumentuen irekierari buruzko aipuak sartzen dituzte beren liburuxketan nahiz webgunetan). Nolanahi ere, Katalunia, Madril, EAE eta Andaluziatik etorritako herritarrek jarraitzen duten bisitari-kopuruaren lehen postuetan.

Atzeritarrei dagokienez, frantsesen taldeak nabarmendu behar dira, eta haien atzetik datoz italiarrak eta alemanak, nahiz eta honako herrialde hauetakoak ere badiren: argentinarrak, kanadiarrak, hungariarrak, holandarrak, ingelesak, portugaldarrak, zeelanda berritarrak, kubatarrak, indiarak, korearrak, suediarak, japoniarrak eta brasildarrak, besteak beste.

Gero eta turista gehiago ere ikus daiteke asteburuetan; astelehenetik ostiralera, berriz, Santiagoko erromesak dira nagusi.